

# Prest!



BERBETAN: **KERMAN LEJARRAGA ARANA** BOXEOLARIA

ERREPORTAJEA: **JAI BATZORDEAK GOGOETAN** BARKUA: **TXINAKO ESALADA SELEKZIOA**

192-193-194-195-196-197



## Gure babesleak



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# Babestu

# Prest!








urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....  
 Helbidea .....  
 Telefonoa .....  
 E-posta .....  
 Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
 94 447 10 42  
 Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

# aurkibidea

	Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia - Nerea Etxaniz Osa 	<b>Iritzia</b>	4
	Mathieu Bamouni 	<b>Gurera etorriak</b>	5
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> Jai Batzordeak gogoetan  <i>Azken hilabeteotan lanez gainezka egon dira Jai Batzordeak. Abenduan Deustukoak jai ereduaren inguruko hausnarketa abiatu zuen eta, urtarrilean, San Inaziokoak inauteriak eta jaiak kolokan zeudela ohartarazi zuen.</i>		6
	Ibarrekolanda BHI 	<b>Eskolak</b>	10
	Julene Urzelai eta Lauaxeta, Deustun mitinlari 	<b>Behin batean</b>	12
	Orbelak: musika propioa egiten jarraitzeko gogoz 	<b>Artikulua</b>	14
<b>b</b>	<b>berbetan</b> KERMAN LEJARRAGA ARANArekin  <i>Profesionaltasunera jauzia eman zuenetik borroka guztiak irabazi ditu Lejarragak, horietatik 22 KOz. Joan den urteko apirilean Europako titulua eskuratu zuen eta martxoaren 30ean berriz defendatu beharko du Bilbao Arenan.</i>		16
	San Ignazioko futbolariak, 1969 	<b>Irdiak berbetan</b>	21
	<b>ANTZERKIA</b> Atzoko eta gaurko zapalkuntza eta borrokek <b>KIROLA</b> Txinako eskalada selekzioa Erriberan <b>PINTXODROMOA</b> Bidegorri taberna <b>KULTUR TXOTX</b> Laura Freijo eta Elorri bertso-eskolako kideak	 <b>barkua bete herba</b>	24

# Prest!

## Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
Deustu 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com  
uriola.eus  
@uriolaeus  
facebook.com/uriolapuntueus

## Zuzendaria:

Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Josu Oleaga, Janire Soldevilla, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurrega

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea

**Argazkiak:** Iñigo Azkona Bikandi

**Publizitatea:** Jone Gartzia Gerra

**Diseinua:** BOST

**Maketazioa:** Amaia Gil Basterretxea

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800

**Lege Gordailua:** BI-571-01

**ISSN:** 1577 - 9017



**Nerea Etxaniz Osa**  
Petritetik



## Lanak eta mantrak

Uharte-haizeak izango dira agian baina uste dut nire auke-ren gainetik ari naizela ametsetan azkenaldian, eta barregarri geratzeko arriskua ere hor dago beti. Lurrera egin beharko nuke eta, esaterako, geopolitikaz aritu zuekin, hemen eta orain. Baina ez dut egingo.

Euforiaz, bai, hitz egin dezaket. Euskal ekosistemak ikusgarritasuna irabazi omen du eta aparretan gara. Ez da txarra hori. Nik, badaezpada, Egun Handira arte ez dut kenduko txaparik. Sasi demokrazia zerri-askara botatzeko beste hamaika arrazoi ere baditugu.

Hala ere, lehengo lepotik burua guk. Neguko aldapan gora, zerbaitetan buru-belarri entretenituko gara, zerbait egiten ari garelakoan batetik bestera ibiliko... eta hori dena ondo dakigun arren ekologikoagoa dela, askoz, ez egitea desegi-

tea baino -beraz, hobea-, ez dena egin ez dagoela zertan birziklatu. Baina ez dugu ikasten.

Baten batek eredu izan beharko du-eta, petritetik, *Ur Berri On! Izan Ur, laguna!* egingo dugu aldarri. Izena urtu digute, ur handitan sartu gaituzte, baina guk zirkirik ere ez, egonean planto. Aurrerantzean, euskal uhartear bakarrak gare-lako matraka mantra bihurtu beharko dugu, goiari eusteko mantra. Izan ere, ez da makala gainera datorkigun zama!

Zamarik ez, baina afana kudeatzaileek dute galanta. Ne-kaezinak dira ekintzaileak: planak, batzordeak, esleipenak, herri-lanak, hesiak, ur-etenak, zuloak... Eta, bide batez, gure espazio "askeak" berez ez badira pikutara joaten, la-sai, arduratuko dira haiek horretaz ere. Euskal mikrokliman... dana da auzolana!?



**Mikel Aiertzaguena Agirrebeitia**  
Gazte mugimenduko kidea



## Zenbat egia?

Egia eta gezurra jarriz gero parez pare, badirudi bakoitzak bere egia eduki dezakeela, horrek arazorik sortu gabe. Esango nuke ez dagoela hamaika, egia azkenean gertatu zena, dena eta gertatuko dena dela; errealitatea. Egongo dira, noski, egia horren mila bizipen, ikuspuntu eta iritzi, baina ez dute sekula egia aldatuko, kontakizuna aldarazi dezaketen arren. Horrela jaiotzen dira historia ofiziala, gertatu zenaz "iritzi" hegemonikoa ezartzeko, baita komu-nikabideak ere, gaur gertatzen ari denaren inguruko azter-keta bat egitea ezinezko bihurtzeko.

Gauzak horrela, badago gaur egungo egiaren kontakizunaz kezkatzen nauen zerbait: gaur egungo errealitatearen

inguruko debatea guztiz zeharkatuta ikusten dut lehenago gertatu zenagatik. Iragina ikasi behar da oraina ulertu eta akatsak ez errepikatzeko, hor ez dago zalantzarik, baina horrek baditu bi arrisku handi, batetik, iraganaren azterketa partziala izatea eta, bestetik, gaur egungo errealitatearen eta, azken finean, egiaren, gertatzen ari denaren inguruko azterketa zintzoa ezin egitea.

Zergatik da inportantea? Gaur egungo egiatik jaiotzen dire-lako etorkizunerako hipotesiak, horiek bai hamaika direnak eta beste hainbeste izan behar dutenak. Horregatik dugu guztiok errealitatea ikasteko erantzukizuna, hipotesi hori etorkizuneko errealitateara ahalik eta gehien hurbildu dadin.



## Mathieu Bamouni

**Jatorria:** Burkina Faso

**Bizitokia:** Arangoiti

**Lanbidea:** Jostuna



“Afrikan gizonak dira normalean josten dutenak”

*Makinaz eta jantziz ‘josita’ dagoen dendan hartu gaitu Mathieu Bamounik. Jendea sartu-irtenean egon da etengabe, jakak konpontzeko, praktikak laburtzeko edota jantziak moldatzeko eskatuz jostunari. Josteko makinari eragiten zion bitartean elkarrizketa atsegina izan dugu elkarrekin.*

Testua  
Prest!

### Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

2006an heldu nintzen. Iruñean geratzekoa nintzen, baina bertan hartu behar ninduen pertsonak ezetz esan zidan azkenengo momentuan, eta Madrilera joatea pentsatu nuen. Lagun batzuek hiri txikiago batera joatea gomendatu zidaten, horregatik etorri nintzen Bilbora.

### Zergatik erabaki zenuen zure etxea uztea?

Hona etorri aurretik Boli Kostara joana nintzen lan bila, inguruko herrialde aurreratuena delako. 2002an gerra hasi zen bertan, eta Burkina Fasora itzuli beharrean Europara joatea aukera onena zela pentsatu nuen. Gerragatik etorri nintzen, bestela han geratzeko asmoa nuen.

### Noialakoak izan ziren zure lehenengo egunak hemen?

Lagun Artean harrera zentroko kideek asko lagundu ninduten: lo egiteko tokia eta jate-

koa erraztu zizkidaten. Diru apur bat lortu nuenean Arangoitira joan nintzen bizitzera. Lagun Artean elkarteari esker ez balitz ez dakit zelan egingo nukeen aurrera, haiei esker lortu nuen.

### Zergatik erabaki zenuen josteta denda irekitzea?

Boli Kostan ere jostuna nintzen, baina hona iristean beste lan batzuetan aritu nintzen hasieran. Bi urtez lan gabe egon eta gero, denda irekitzea erabaki nuen. Abuztuan bost urte beteko dira.

### Jostuna zara, beraz.

Afrikan gizonak dira normalean josten dutenak, emakume gutxi dira jostunak; edo hala zen behintzat nire garaian. Hemen desberdina dela uste dut.

### Oraindik ere jendeak arropa konpontzeko ohitura dauka, edo apurtutakoan berria erosteko joera dago?

Jende asko etortzen da

konponketak egitera. Hasi-ran denda jantziak ere egiten nituen, baina hainbeste jende etortzen zen konponketekin, ezen jantzigintzarena alde batera utzi behar izan nuen. Denbora asko behar da jantzi bat egiteko, eta egin beharreko konponketa guztiekin nahikoa nuen.

### Gaztelania ikasi zenuen hona iristean, euskara ikasteko asmoa duzu?

Gustatuko litzaidake, baina ez daukat astirik. Egun osoa lanean ematen dut.

### Zer deritzozu hemengo jendeari buruz?

Jende on asko dago hemen, oso gustura nago.

### Kontaktuan jarraitzen duzu zure herrialdeko jendearekin?

Bai, harremana daukat eta noizbehinka bisitan joaten naiz.

### Itzultzeko asmorik daukazu?

Ez, hemen geratuko naiz erretiroa hartu arte.



# JAI BATZORDEAK GOGOETAN

*Azken hilabeteotan lanez gainezka egon dira Jai Batzordeak. Abenduan Deustukoak jai ereduaren inguruko hausnarketa abiatu zuen eta, urtarrilean, San Inaziokoak inauteriak eta jaiak kolokan zeudela ohartarazi zuen, auzotarren inplikazio falta zela-eta.*

**Testua:** Nerea Cubillo, Nerea Olaziregi eta Jone Gartzia

Urte batzuk dira Deustuko Jai Batzordea osatzen duten kideek aldaketa baten beharra ikusi zutela. Askotan mahai gainean jarri dute jai ereduari buruz zer hausnartu baze-goela eta maiz galdetu diote bere buruari jaiak benetan herritik eta herriarentzako egiten diren edo, aitzitik, kanpotik datorren jende andanari begira antolatzen diren.

Ertz asko ditu eztabaidagaiak: jai eta Inauterietan sortzen den giroa, batzordeko mahaiaren lan zama edota helburuak. Horien guztien inguruan patxadaz hausnartzeko garaia zela iritzita, gogoeta prozesua abiatzea erabaki zuen Deustuko Jai Batzordeak.

Abenduaren 15ean Batzordea osatzen duten eragile eta talde gehienak elkartu ziren Deustuko Udaltegian. Denbora luzez eztabaidatu ostean, ez zuten erabaki irmorik hartu, eta beste saio bat finkatu zuten; beste egun bat, hainbat dinamikarekin, aurrekoan hitz egindakoak kontuan hartu eta aztertu ostean, erabakiak hartzen hasteko xedez.

Ikasturtea "berezia" izaten ari da deustuarentzako. Abenduaren 24an antolatutako Olentzero eta Mari Domingiren kalejirak 50 urte bete zituen; mende erdia gazte zein guraso askoren Eguberriko gauak alaitzen.



Halaber, datozen hilabeteetako data garrantzitsuak prestatzen buru belarri ari dira dagoeneko. Otsailaren 22tik 24ra Deustuko Inauteriak ospatuko dituzte, urtero bezala ostiraletik igandera. Egitarau betea antolatu dute horretarako. Ostiralean elektrotzaranga batek emango die hasiera jaiei. Larunbatean umeentzako jolasak, bazkaria, erromeria eta kontzertuak izango dira. Ohi legez, igandean egingo dute desfile nagusia, eta horren ostean barbakoa antolatuko dute, inauteriak inoiz baino alaiago agurtzeko.

Deustuko kuadrila eta konpartsa guztiez gain, aurten ere tabernen eta merkatarien parte hartzea sustatu nahi dute, “Deustu goitik behera mozorrotzeko helburuarekin”.

### **Kuadrillak ere gogoetan**

Deustuko kuadrilek ere izan zuten hausnarketarako txanda joan den abenduaren lehenean, *Deustu koloreztatzen* goiburupean. Kuadrilen “gainbeherari” aurre egiteko, eztabaida eta jaia uztartu zituzten, bide batez, harremanak sendotu eta belaunaldi berriak erakartzeko baliatu zutena. Motibazioa berpiztu ostean, inauterietan egitarau

propioa osatzeko indarrak bildu dituzte. Ostirala ekintzaz eta kolorez betetzeaz arduratu dira.

Jaiak ere berezi datoz aurten. Martxoaren 19arekin batera, aurten jaieguna izango dena, guztira 9 egun dira Deustuko egitaraua beteko dutenak. Oraindik ez dute informazio gehiago argitu, baina, bien bitartean, mozorroak prestatzen hasteko deia zabaldu dute, inauteriak ate joka baitaude!

### **Azkenean bai, San Inazion inauteriak ospatuko dituzte**

Urte hasiera zaila izan da San Inazion. Jai Batzordeak alarma hotsa piztu zuen: “2019an ez da Saniko Inauteririk izango”. Azkenaldian, lan zama pertsona gutxiak hartu izanak desgaste handia ekarri duela azaldu zuten. Kide eta laguntzaile faltak erabaki gaitza hartzera bultzatu zituen, aurten aratustetik ez antolatzea, hain zuzen. Arago, egoera nahasiak inauterietan ez ezik, Eki Egunean eta auzoko jaietan ere eragina izan dezakeela ohartarazi zuten: “egoera aldatu ezean, ez da inauteririk egongo eta berdin jarraitzen bada, jaiak ere arriskuan egongo dira”.

**“Egoera aldatu ezean, Saniko Jaiak arriskuan egongo dira”**



**IKASTARO**  
teknologikoak

DOAN!

AZKUE  
FUNDAZIOA



**APPINVENTOR**

sakelako gailuetarako  
aplikazio sinpleak egiten ikasi

**EMAN IZENA:**

[www.azkuefundazioa.eus/ikastaroa](http://www.azkuefundazioa.eus/ikastaroa)

**OTSAILAK  
27**

Euskararen  
Etxean



Adierazpenok hautsak harrotu zituzten sare sozialetan. Eztabaida piztu zen eta hainbat gaik zer esana eman zuten: jai eredia, auzotarren parte-hartzea, egitaraua...

Kritikak alde batera utzi eta inauteriak elkar-lanean antolatzeko aukera probestu zuten auzoko kuadrillek. Berehala bilera bat deitu zuten "guztion artean auzoari bizitza emateko" eta jende asko bertaratu zen: kuadrilletako kideak, jai-eremuko tabernariak, konpartsakideak... Aho batez inauteriak mantentzeko erabakia hartu zuten.

Ospakizunaren data finkatzeko ere aprobetxatu zuten: martxoaren 9a. Izan ere, Jai Batzordearen oharra kaleratu eta berehala, Ondalan Erraldoien Konpartsak urtero inauterietan egiten duen kalejira mantentzeko asmoa adierazi zuen, egun horretan, hain zuen. Gauzak horrela, kalejirarekin bat egin eta inauteriak orduan antolatzeko hautua egin zuten.

Behin eguna aukeratuta, egitaraua prestatzen hasi dira. Zehaztu gabe dagoen arren, aurrerapen txiki bat egin digute: eguerdian kalejira egingo dute, sariak banatu ostean Errondoko Auzo Etxean bazkari herrikoia izango da, eta lehiaketa gastronomikoa Le-bante enparantzan. Arratsaldean haurrentzako ekintzak egongo dira: Txepetx aisialdi taldeak antolatutako jolasak eta Juliani magoaren ikuskizuna. Iluntzean, berri, helduentzako poteo musikatua, eta gaua biritzeko Dja izango dira.

Jai Batzordearen alarma-hotsak erantzun positiboa izan zuen auzokideen partetik.

Inauteriak, behintzat, indartsu datoz San Inaziora. Hurrengo helburua, Eki Eguna eta jaiak antolatzeko jendearen parte hartzea handitzea izango da.

### **Ibarrekolanda eta Erriberan ere inauteriak antolatuko dituzte**

Martxoaren 9a izango da gure auzoetako inauterien egun seinalatua. San Inazion ez ezik, Ibarrekolandan eta Erriberan ere egun berean aterako dituzte mozorroak armairutik. Gordetzeko betarik ez dute izango, ordea, Deustuko jaiak hurrengo astean hasiko baitira. Aurten gainera data garrantzitsua batu zaio egitaruari: San Jose eguna, hilaren 19an.

Erriberako Txitxardin Jai Batzordea inauterietako prestaketa lanetan murgilduta dabil. Badirudi ez direla faltako ohikoak diren haurrentzako tailerrak, herri bazkaria, mozorro desfilea, berbena eta txorizo jana. Sorprezarako tartea ere egongo da seguruenik.

Oraingoan, mozorro gaia zehazteke dago baina azken egunotan, "Manhattan uhartean" izandako uholdeen harira hainbat proposamen zabaldu dira auzokideen artean. Argi dagoena da Erriberatarrek inauteri bereziak izango dituztela, oraingoan ere, umorea, salaketa eta aldarrikapena uztartuz.

Ibarrekolandan ere hasiak dira inauteriak antolatzen. Egun osoko egitaraua antolatu dute, ohikoak diren desfile eta bazkaria barne. Mozorroen gaia ere zehaztu dute, ipuinak, Ibarrekolanda "ipuinetakoa" bihurtzeko.

**"Alarma-hotsak erantzun positiboa izan zuen"**



www.renault.es / 902 333 500

## **RENAULT BILBO BERRI**

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA  
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

RENAULT presentatzen du **elf**



# BOLINTXU ARRISKUAN

Gabonak heldu aurretik, Ibarrekolanda BHI-ko zenbait ikasle Bolintxu bisitatzera joan ginen bi irakasleren laguntzarekin. Irteeraren helburua gunea hori ezagutzea zen. Arriskuan dagoela jakinda, bertaratu nahi izan genuen. Gunea bisitatu baino lehen, dokumental txiki bat erakutsi ziguten Bolintxuren egoera azaltzeko. Benetan tristeza da Bolintxun gertatzeaz dagoena.

**Testua:** Imanol Orokietza  
**Argazkiak:** Vanessa Parro

Bolintxuko gunea errepide luze batez zeharkatuko duen proiektua du buruan Foru Aldundiak. Errepide berriak Supesur proiektuaren amaiera ekarriko luke Gasteizera doan A68 autobidearekin bat eginez. Helburu nagusia dirua da, beti bezala, ez garraio kontuetan dauden arazoak modu iraunkorrez aurre egitea. Izan ere, edozeinek daki proiektu horrek hasieratik porrot

egin duela Bilbo inguruko trafikoa arintzerakoan, oso jende gutxi erabiltzen baitu.

Saihesbidea egiteko bailararen hainbat gune suntsituko dituzte, eta horrekin batera hainbat animalia ere hil egingo dira, horien artean babestutako espezieak (sagu-zaharrrak) eta anfiboak. Hitz batean, fauna eta florientzat lurzoru on gutxiago. Horretaz gain, lanak bukatutakoan ibilgailuen joan-etorriek izugarriko kutsadura akustikoa eragingo dute egunero, gau eta egun. Ibilgailu zaratzatu horiek geratzen diren animaliei ezinezkoa egingo diete bizimodua, sortzen duten kontaminazioa oso kaltegarria delako inguruan dauden landare eta animalientzat.

Baina fauna eta flora ez dira egitura horren eruz kaltetuta ateratzen diren bakarrak.





Bolintxu inguruan animaliez gain jendea ere bizi da, Buia eta Seberetxe auzoetan. Biztanle horiei betiko paisaia kenduko diete. Bilbo ondoan bizitzeko, baina leku lasai batean, egindako hauetak eta ametsek porrot egingo dute.

Egunero, leihotik begiratzean lehengo errepideaz gain, beste berri bat ikusi beharko dute etxe ondotik pasatzen, ibilgailuz beteta, zarata, kutsadura....

Bolintxura urteetan zehar ehunaka pertsona hurbildu dira paisaia ikustera, disfrutatzen, momentu lasai on bat igarotzen, familiarekin irteera egitera... Nork daki zenbat familia egon diren Bolintxun igandeak pasatzen! Nork daki zenbat gazte egon diren gunehonetan jolasean, bainatzen, hirigunea alde batera utzita! Nork daki zenbat bikote hurbildu diren bere hariztira bakardade pixka baten bila! Nork daki zenbat jende joan den gauean zeruko izarrak lasaitasunean ikustera... Ba esandako guztia ezinezkoa izango da datozen urteetan errepidearen luzapena burutzen bada, Foru Aldundiak haranaren bihotzean egin nahi duen 180 metroko aerobideak ingurumena eta zoria guztiz zulatu eta suntsitu egingo dituelako.

Nire iritziz, errepideak eragingo dituen onurak ez dute hainbat jende eta animalien etorkizuneko zorientasuna suntsitzea justifikatzen. Zertarako erabiliko dira errepideak eragingo dituen irabaziak, beste errepide edo egitura bat eraikitzeke beste gunehon natural batean? Hainbat mobilizazio antolatzen ari dira Bolintxu arriskutik ateratzeko, sinadura bilketa ere badago, beraz, zuk ere lagundu dezakezu Bolintxu salbatzen.

 **ARTEBI**

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN  
BILBOKO ESKOLA

**MUSIKA - DANTZA  
ANTZERKIA - GIDOIA**

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49  
artebilbao@terra.es www.artebi.es

**YVES ROCHER**  
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303





## JULENE URZELAI ETA LAUAXETA, DEUSTUN MITINLARI

*1933ko irailean Deustuko batzoki berria zabaldu zuten. Ospakizuna ixteko, jeltzaleek ekitaldi handia antolatu zuten Etxezuriko zelaian. Han izan ziren hizlari Julene Urzelai eta Estepan Urkiaga, 'Lauaxeta'. Euskaraz egin ote zuten?*

1933ko irailean Deustuko EAJk astebeteko ekitaldiak antolatu zituen batzoki berria zabaldu behar zuela ospatzeko. Batzokia Viar sendiaren txaletean atondu zuten, gaur egungo Ramon y Cajal kaleko 24. zenbakian. Inaugurazioa irailaren 17an egin zuten, domekarekin. Goizeko ospakizunak (meza, banderen bedeinkapena, txistulari eta dantzarien kalejirak, pilota partidak...) bazkari batekin biribildu zituzten. Bazkalostean egin zuten ekitaldi nagusia: mitina Etxezuriko futbol zelaian.

Testua  
Hektor Ortega



Julene Urzelai, Deustuko mitinean. Argazkia: Espiga / Ahora aldizkaria.

Bazkaritik kalejiran joan ziren Etxezuriraino, Joakin Landaluze txistulariaren doinuez lagundurik. Bertan tribuna atonduta zeukaten. Haren aurrean paratu zen jendetza. Juan Jose Basterra Bilboko zinegotziak eta ELAko buruzagiak egin zuen aurkezpena. Hizlarietara berba eman aurretik, gutun bi irakurri zituen, Luis Arana Goirirena lehenengoa, Florentzio Zarate deustuarrarena bigarrena.

### Julene Urzelai

Ondoren, Julene Urzelai azkoitiarra aurkeztu zuen. Emakume Abertzale Batzakoak zen Urzelai, 21 urteko gaztea. Artean sona handia lortu zuen jeltzaleen artean hizlari moduan. Deustuan ere bere jardunak lorratza utzi zuen: Euzkadi egunkarian agertu zen kronika luzearen zatirik handiena bere berbaldiari eskaini zioten. Eta ez zuen edozer gai hautatu: euskara hartu zuen hizpide.

Kronika erdaraz idatzi bazuten ere, Julene Urzelai euskaraz egin zuen. Honela jaso zuen Euzkadi egunkariak hitzez hitz (guk euskaratuta): “Beldur naiz ez ote duzuen ulertuko nire Gipuzkoako euskara, zuenaz oso bestelakoa ez bada ere. Gipuzkoako bihotzean eta hemen, Bizkaiko lurrian, hizkuntzak ñabardurak dauzka; baina, orain bezala, bihotzek hitz egiten dutenean, ez du ardura kanpoko hitzen itxura. Ez nuen pentsatuko Bilbotik deitu behar nindutela euskaraz egiteko; baina, antza denez, hemen euskarak ez du galdu bere indarra, hainbeste arrotzen artean egonik ere. Nik beti egin dut nire hizkuntzaz, eta ez dut uste aberria eraiki daitekeenik hizkuntzari lepoa emanda”.

Urzelai euskararen aurkako erasoen larria nabarmendu zuen, geroago Xalbador bertso-lariak erabili zuen metaforaren oso antzekoa erabiliz: “Arrotzen armarik indartsuena gure hizkuntza kentzea izan da, arima galdu eta gero gorputza ere hil zedin”. Eta zelan egin zuten azaldu zuen: Canovas del Castillok, Espainiako Gobernuaren burua izandakoak XIX. mendearen amaieran, armadak eta guardiak baino gehiago, maisu-maistrak bidali zituen

Euskal Herrira, erdara inposatu behar zuten irakasleak. Eta eurekin batera, gotzain espainolistak, euskara gorroto zuten legegizon, epaile eta notarioak...

Zapalketa iraultzeko lanari Sabino Aranak ekin zion, esan zuen. Eta haren atzetik, beste asko. "Euskal abertzaletasuna Euzkadirekiko maitasunetik sortu da; horregatik, maitasun hori dagoen lekuan ez dago etsaien espetxe, jazarpen, gezur eta joaldien beldurrik". Aberrri zapalduaren inguruan batzeko deialdia eginenez amaitu zuen: "Gure borondatearen aurka kendu zigutenaren bila goaz". Txalo zaparrada itzelaz saritu zuten entzuleek Julene Urzelaireren hitzaldia.

### Eta Lauaxeta

Ostean Julian Ruiz de Agirre donostiar abokatuak egin zuen berba labur. Eta, azkenik, Estepan Urkiaga, *Lauaxeta*. Zeanuritik zetorren, han beste mitin bat eman zuen eta. Ez dakigu euskaraz ala erdaraz egin zuen. Kronikak ondoko hauxe baino ez dio: "entzuleak piztu zituen hitzaldi sutsu, indartsu eta abertzaletasun argikoak".

Urzelaireren eta Urkiagaren bizitzek lotura puntuak dauzkate. Julene Urzelaireren lehenengo mitinean (1931, Azkoitia), *Lauaxeta* hizlari aritu zen. Gerora sarritan azaldu ziren batera oholtza gainera. Gerra piztu zenean, Urzelaik Gernikako bonbardaketa jasan zuen, aterpe batean babesturik. Handik gutxira harrapatu zuten etsaiek *Lauaxeta* Gernikan bertan, kazetariei bonbardaketaren nondik norakoak erakusten zizkien bitartean. *Lauaxeta*, jakina denez, fusilatu egin zuten. Urzelaik Vene-

Etxezuriko zelaiko mitina. Argazkia: Espiga / Mundo Gráfico.



Bilbao.—Un aspecto del campo de Deusto durante la celebración del mitin nacionalista, el domingo último (Fots. Espi)



zulako erbestean eman zuen bere bizitza 1940tik aurrera. Handik ere, euskaraz egin zituen hitzaldiak, Caracasen antolatu zuten Radio Euzkadiren bidez.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99



## MUSIKA PROPIOA EGITEN JARRAITZEKO GOGOZ

*Sei abesti eta 'intro' bat dituen diskoa kaleratu berri du Orbelak Deustu-San Inazioko talde gazteak. Jotzen hasi zirenetik landutako kantuak biltzen ditu, denak eurek konposatutakoak, Zoroen Klubeko kideekin egindako kolaborazio bat tarteko. Maketa Youtuben entzungai dago eta euskarri fisikoan ere lor daiteke.*

**Testua:** Jone Gartzia  
**Argazkia:** Jon Salegi  
**Irudia:** Jon Lorenzo eta Ibon Montaña

Urtarrilaren 23az geroztik entzungai dago *Orbelak*, izen bereko taldearen lehen lana. Basauriko Txarraska Gaztetxean grabatu dute, Raust! taldeko baxu jolea den Asier Salazarren laguntzarekin. Bera arduratu da kantuen grabaketa eta produkzio lanez. Joan diren azaro eta abendua estudioan sartuta eman dituzte, lana aurrera atera ahal izateko.

Hilabeteetako eginahalaren ostean, argitara eman dute ilusio handiz ondutako maketa berria. Elkarrekin jotzen hasi zirenetik argi zeukaten zerbait grabatu nahi zutela, eta azkenean lortu dute ametsa egikaritzea. "Hasieratik kantak konposatzen egon gara", azaldu digute kideek. Denbora aurrera joan ahala, maketa bat grabatzeko nahikoa kanta zituztela ikusi zuten. "Gure lagun eta Raust! taldeko baxu-jotzaile den Asier Salazarrek laguntzeko prest zegoela esan zigun eta halaxe hasi ginen Txarraskan grabatzen".

Diskoan punk-rock doinuak nabarmentzen dira. Abesti batzuek hardcore kutsua daukate, eta rap-rocka da Zoroen Klubarekin egindako kolaborazioaren oinarria. "Punk-rock taldea bezala definitzen garen arren, kanten artean aniztasuna dagoela uste dugu, saiatu egin baikara oso kanta antzekoak ez egiten". Konposizioari ez ezik, letrei ere euren kutsua ematen saiatu dira. Gaur egun pil-pilean dauden gaiak landu dituzte: migratzaileen krisia, eskuin-muturraren gorakada, komunikabideen manipulazioa, errepresioa... "Gure inguruko musika-eszenan ikusten ditugun ja-

rrera batzuei kritika egiten ere ausartu gara", gaineratu dute. "Badakigu honetan hasi berriak garela eta esperientziaz urri gabiltzala, baina zerbait esateko gogoia genuen".

### "Oso gustuko dugu tabernetan edo gune autogestionatueta jotzea"

Eman dituzten azken kontzertuak Sopelako Plaza Beltza kulturgunean, Ugaoko Dorretxea herriko tabernan eta Bilboko Alde Zaharreko Zazpikatu gaztetxean (birritan) izan dira. "Oso gustuko dugu tabernetan edo gune autogestionatueta jotzea", aitortu digute: "horiek dira jotzen ondoen pasatzen dugun tokiak". Herri eta auzoetako jaietan ere jo dute, Larrauriko jaietan edo San Inaziokoetan, adibidez. "Kontzertu guztietan saiatzen gara gure onena ematen, baina batekin geratu behar bagara Alde Zaharreko elkartasun astean emandakoarekin izango da. Egun erabiltzen dugun errepertorioa finkatu genuen eta oso gustura ibili ginen oholtza gainean".

Behin maketa plazaratuta, kontzertuak lotzeko lanetan dabilta. Oraingoz bolo bakarra lotu dute, martxoaren batean Deustuko Satellite T aretoan emango dutena. Maketa ezagutarazteaz gain, kontzertuak ematen jarraitzea da gaur egun daukaten helburua, "hori baita gustukoaren duguna". Orain arteko lanarekin pozik daude eta aurrerantzean jotzen eta grabatzen jarraitu nahi dute, "helburu finkorik gabe". "Gure musika egiten jarraitu nahi dugu", diote.



SAN INAZIO ESKOLA



Gure auzoko eskola publikoa

- \* D EREDUA / modelo D
- \* ESPAZIO HEZITZAILE BERRIAK/ Nuevos espacios educativos
- \* BIZIKASI" PROIEKTUA/proyecto "Bizikasi"
- \* 2 URTETIK AUERRERA/ a partir de 2 años
- \* HHTik INGELESA /Inglés desde E.I.
- \* ESKOLAN EGINDAKO BAZKARIA Cocina propia
- \* GOIZEKO/ARRATSALDEKO ZAINTZA  
Servicio "conciliación familiar" mañana/tarde
- \* ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA UGARI  
Amplia oferta de actividades extraescolares

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIKI!  
URTARRILAK 28 – OTSAILAK 8  
PLAZO DE MATRICULA ABIERTO  
28 ENERO – 8 FEBRERO

ESKOLA EZAGUTZEKO EGUNA  
URTARRILAK 30  
30 ENERO (16:30)  
JORNADA PUERTAS ABIERTAS

C/ Cantabria, 2.  
48015 Bilbao  
Tel. 944 758 364.

[www.saninazioikastetxea.com](http://www.saninazioikastetxea.com)

San Inazio



HATOR EZAGUTZERA!

**Deustu ikastetxea**

Haur eta Lehen Hezkuntza



Blas de Otero, 66 Deustu 48014 Bilbao



0- 2 urte : 94 475 29 44

2-12 urte : 94 475 49 55

D eredua

Euskal eskola publikoa zure auzoan

Matrikula epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

**berbetan**

KERMAN LEJARRAGA ARANArenkin

Boxeolaria

*“Bilbao Arena hankaz*





Testua eta argazkiak: Prest!



# gora jarriko dugu”

*Profesionaltasunera jauzia eman zuenetik borroka guztiak irabazi ditu Lejarragak (Morga, 1992), horietatik 22 KOz. Joan den urteko apirilaren 28an Europako titulua eskuratu zuen eta martxoaren 30ean berriz defendatu beharko du titulu bera Bilbao Arenan ‘Morgako errebolberrak’. Deustuko MGZ gimnasioan entrenatzen da horretarako, bertan elkartu gara elkarrizketa egiteko.*

## **Nola hasi zinen boxeoa?**

Durangon judoa egiten hasi nintzen, gero Zornotzara joan nintzen Kickboxing egitera eta, azkenean, osabak boxeoa saiatzea proposatu zidan. Kuadrillako batek Txutxi del Valle aurkeztu zidan (gaur egungo entrenatzailea) eta berarekin hasi nintzen entrenatzen.

## **ETBko ‘Boxeo izarrak’ saioa ikusten zenuen?**

Ez, txikitan ez zitzaidan boxeoa gustatzen.

## **Noiz ikusi zenuen profesionaltasunera iritsi zintezkela?**

19 edo 20 urte nituela, Txutxi esan zidan horrela jarraituz gero, profesional mailara pasatuko ninduela. Ikasketarik ez daukadanez, boxeotik bizitzen saiatzea ideia ona iruditu zitzaidan eta 21 urterekin egin nuen salto profesionaltasunera.

**“Ez naiz garaiezina, egunen batean eroriko naiz”**

# berbetan

KERMAN LEJARRAGA ARANArekin

## ▷ ▷ SAKONEAN

### “30 urterekin boxeotik erretiratuta egon nahi dut”

#### Idolo edo erreferenterik?


Boxeo munduan Andoni Gago, Ruben Nieto eta *Chato* Benitez. Boxeotik kanpo Julen Guerrero zen nire txikitakto idoloa.

#### Eskuratu duzun titulurik berezia?

Europako txapelduna izatea.

#### Nora iristea gustatuko litzaizuke?

Diru-boltsa handi bat lortzean negozio bat irekitzea gustatuko litzaidake. 30 urterekin boxeotik erretiratuta egon nahi dut. Alaba bat daukat eta ez dut disfrutatzen, ez dut ikusten zelan hazten ari den, eguna entrenamenduan edo deskantsuan ematen dudalako. 30 urterekin beste seme edo alaba bat izan nahi dut eta berarekin disfrutatzeke aukera izan.



#### Euskal Herrian boxeo zaletasun handia egon da, zer dela eta piztu da berriro?

Andoni Gago izan da 'errudun' nagusia. Bere atzetik beste guztiok joan gara: Jon Miguez, Saul Luna, Ieltxu Lahuerta... Jende asko dago orain. Txutxik eta Eusebiok ere lan handia egin dute, boxeo jaialdiak antolatuz, adibidez.

#### Zer sentitzen duzu BEC edo Bilbao Arena beteta ikusten duzunean eta egun bakarrean 6.000 sarrera saltzen dituzunean?

Zirrara handia. Gogor entrenatzeko eta borroka entretenigarriak egiten jarraitzeko motibazioa da aretoak jendez topera ikustea.

#### San Mames beteko zenuke?

San Mames betetzeko 6.000 pertsona baino gehiago behar dira. Gure hurrengo helmuga Bilbao Arena betetzea da, martxoaren 30ean izango den Europako txapelketan.

## **27 burrukatik guztiak irabazi dituzu, eta 22 KO-z. Garaiezina zara?**

Ez, ni ez naiz garaiezina. Garaiezinak Myweather, Rocky Marciano eta Joe Calzaghe dira. Ni egunen batean eroriko naiz, jende guztia erortzen den bezala, eta erortzean berriz altxatuko naiz.

## **Zer gertatuko litzateke kasu horretan?**

Zer egingo duzu, ba? Altxatu, borrokaldi gehiago egin eta jendeari erakutsi aurrera jarraitzen duzula.

## **Amerikako Estatu Batuetara itzuliko zara?**

Soilik titulu bat borrokatzeko bada, bestela ez. Egonda nago eta bidaia oso nekeza da: *jet-laga*, pisua jaitsi behar izatea... Estatu Batuetara baldin banoa titulu batengatik izango da, ez borroka soil batengatik.

## **Zer daukazu orain buruan?**

Europako Txapelketa, martxoaren 30ean.

## **Txapelketaren eguna bai, baina aurkaria oraindik ez dago zehaztuta, boxeolaririk duzu buruan?**

Izen batzuk daude airean, Dimitry Mikhaylenko Errusiarra, adibidez. Tipo gogorra eta oso indartsua da, beti aurrera doa. Erraldioen arteko talka izango da. (Oharra: Elkarriketaren ostean iragarri zen David Avanesyan Errusiarra izango duela aurkari).

## **Munduko Txapelketa irabazteko gai ikusten duzu zure burua?**

Hori ezin dut nik esan, baina saiatuko naitzela bai. Entrenamenduen ostean eta esperientzia hartuta ikusiko dugu.

## **Noiz egongo zara prest horretarako?**

Ni prest egongo naiz deitzen didatenerako.

## **Andoni Gago eta zu belada berean borrokatzen zareten bakoitzean biok irabazi izan duzue. Martxoaren 30ean berdina gertatuko da?**

Biok saiatuko gara Bilbao Arena hankaz gora jartzen. Espetakulu itzela izango da, borroka onak egongo dira, eta titulu bat baino gehiago seguraski ere bai.

## **Nola prestatzen duzu borrokaldi bat?**

Hiru hilabeteko prestakuntza izaten da. Astelehen, asteazken eta ostiraletan hiru entrenamendu saio egiten ditut egunean. Goizeko 06:00etan korrika egitera joaten naiz, gero gimnasia etorri boxeora eta arratsalde fisikoa egiten dut Faduran (Getxo). Astearte eta ostegunetan korrika egiten dut goizez eta sparringak arratsalde. Larunbatetan sparringak edo korrika, astearen arabera. Hiru hilabetez egoten naiz horrela, eta, noski, hau guztia dieta zainduz pisua jaisteko.

## **Eta burua zelan prestatzen duzu?**

Txutxirekin eta Iker Jauregi entrenatzaile fisikoarekin aurkari borrokak ikusten ditut eta jokaldiak prestatzen ditugu.

## **Nola prestatzen duzu ringera igotzeko 'show'a?**

Ez dut prestatzen, tontakeria bat da: ringera igo eta listo.

## **Nola sortu zen MampoGym gimnasioa?**

Txutxik boxeo gimnasio bat zeukan Zorrotzaurren. Gero eta boxeolari gehiago izaten hasi zenean lokal hau alokatu zuen, profesioaletara igotzeko aukera izan genezan.

## **Edonor entrenatu daiteke hemen?**

Bai, ateak edonorentzako daude irekita.

## **Edonork *sparringak* izan ditzake?**

Hori ez. Amateur zein profesionalek izan ditzakete *sparringak*, baina kontu handiz egin behar da, segurua izan arren, arazoak sor ditzaketelako. Niri adibidez Errusiatik, Ingalaterratik, Irlandatik edota Amerikako Estatu Batuetatik ekartzen dizkirate *sparringak*. Arriskutsua izan daiteke esperientziarik ez izanez gero.

## **Gazteak animatuko zenituzke boxeoan aritzera?**

Bai. Gazteak hona hurbiltzera animatuko nituzke, entrenatzera, boxeo jaialdietara joatera...

**“Prest egongo naiz deitzen didatenerako”**


## 21. KORRIKA 'Klika' Deustun

Apirilaren 11n helduko da Korrika Bilbo eta Deustualdera. Apirilaren 4ean, osteguna, Nafarroako Gares herritik abiatu eta astebete geroago gurera iritsiko da. Ostegun eguerdian Zorroztatik sartuko da Korrika. Guztira 88 testigu aldaketa egongo dira Bizkaitar

hiriburuan. Deustura 15:45ean sartuko da. Ibarrekolanda, San Inazio eta Elorrieta gurutzatuko ditu, 16:30tik aurrera Erandiora bidean jarraitzeko hurrena. Gelditu gabe 2.560 kilometro egin ostean, apirilaren 14an helduko da lekukoa Gasteizeko helmugara.

## Lebante plaza estaltzeko lanak

Hasi dira Lebante enparantzako zati bat estaltzeko lanak. Beheko partean dagoen kioskoari egitura garden bat erantsiko diote. Horren aurrean auzokideak haserre agertu dira, izan ere, plaza berean dagoen frontoia estaltzeko aldarria aspaldi luzatu zuten San Inazioko auzokideek. Udalak "entzungor egin eta nahi izan duena egin du", salatu dute. Gainera, hauteskondeei begira eta auzoko jaietan karpa eta oholtza jartzeko erabiltzen duten espazioa kontuan hartu gabe egin izana leporatu diote Udalari.



## Tripontzia Ibarrekolandan

Tripontzia zozketak Ibarrekolandan banatu du bigarren saria. 21013 zenbakiari egokitu zaio eta 1.500 euro jasoko ditu zenbaki horren serie bakoitzak. Lehenengo saria ere hurbil saldu da, Getxon, eta hirugarrena Hondarribian. Tripontzia Urteberriko Sariaren bultzatzaileak Gure Esku Dago eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua erakundeak dira, eta bi elkarte horiek finantzatzeko laguntzea du helburu zozketak. Aurten bildutako dirua *Elkarrekin-Together* film dokumentala finantzatzera bideratuko da.



PREST!

## Gomendio emaile berriak

Urte berriarekin batera gomendio emaile "berriak" ere ditu Prest! aldizkariak. Janire Soldevilla eta Josu Oleagaren urtebeteko ibilbidearen ostean, Laura Freijo eta Gorka Zozaia hartuko dute lekukoa. Haiek arduratuko dira hilerro txandaka kultur gomendio freskoenak geureganatzea. Laura Freijo Iglesia deustuarra Sorkuntza eta Diseinuan graduatua da. Artea betidanik maite izan du, eta aspaldi hasi zen herri mugimenduetan kartelak, ilustrazioak eta editorialetan grafikoak egiten. Gorka Zozaia Garcia jaiotzaz donostiarra da, baina Leioara Kimika ikasketak egitera etorri zenetik "bizkaitartu" da eta gaur Deustuko Erriberako "isleñoa". Urteotan herri mugimenduko hainbat eragiletan aritu da lanean, azkenaz lpesen. Aurten irakasle bilakatzeko bidean da. "Bitartean, gomendio bazuk partekatzeko prest!"




## "Agur, Esther"

Urte luzez Deustualdean euskararen alde aritu eta gero, berbalagun taldeko kide zen Esther urtarrilaren 9an zendu zen. Urtebete lehenago, 2018ko urtarrilean, berbalagun taldeko kideek omenaldia egin zioten, "euskaragatik eta gugatik egin dituenak berari eskertzeko". Omenaldirako testu bat eta bertso bat prestatu zizkieten. Euskararen alde egindako lana eta kideak zaintzeko hartutako ardura eskertu zizkieten. Euskarari zion pa-

sioa erakusteko, pasadizo bat kontaktu zuten. 2014an Iturribideko Helduen Hezkuntza Institutuan euskara ikasteko gela gabe geratu zenean, gainontzeko ikasleekin antzera etsi beharrean, Esther euskaltegi euskaltegi joan zen konponbide bat aurkitu arte. Azkenean Bilbo Zaharra euskaltegiko zuzendariarekin bildu eta euskara ikasteko espazio berri bat lortu zuen. Harrezkero, handik pertsona asko pasatu dira eta gaur egun hiru talde daude.





Urtea: 1969

Txema Luzuriaga

## *San Ignazioko futbolariak*

Orain dela 50 urteko argazki honetan S. D. San Ignacio futbol taldeko kideak ikus ditzakegu

San Ignazioko kiroldegian. 1969-1970 denboraldia zen. Jabi Ortegak lagatako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

**~IZEKI~**  
**TABERNA**  
 BETI ZIZEKAN SUA  
 argi bat izeki zen zeruan  
 su horidun sugarra ostopo  
 itzalsuen atzean  
 Ramon & Kaja 26  
 DEUSTU

**DENDA IREKIERA**  
 gizonentzako denda

**Level 1**

Madariaga 10 DEUSTU  
 level1.es 946 85 53 80

**Optica**  
*Avenida*

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
 SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI**  
**TABERNA**

Luzarra 1  
 Deustu  
 946 75 40 17

**BREST**

kafetegia  
 Blas de Otero, 5  
 Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso Pertsianak**

Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
 48015 Deustu-Bilbao  
 Tel.: 94 600 14 24  
 alonsoper@euskalnet.net

**Urrunago zertarako?**  
 Deustuko Liburudenda  
 San Pedro Plaza 4

**Yoki Berrri**  
 Taberna  
 Good vives!

Luzarra, 6 - Deustu  
 @tokiberritaberna

1924tik Deustun

**Eintoreria**  
**La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze  
 jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
 euskara zerbitzua

**Probatu**  
**herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea  
 48014 Deustu  
 tel. 94 475 22 33  
 matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu**  
 aek ■ euskalategia

Matrikula zaitetz! **aek**

**Nailan**  
 Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
 nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO**  
 HORTZ KLINIKA

**Iratxe Jimenez Bobadilla**  
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
 Ume eta helduak  
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
 Peridontzia eta protesi kengarriak  
 Ortodontzia

PADI  
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
 E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**

**Sabin**  
 Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6  
 Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
**CERRAMIENTOS**

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
 TEL. 94.447.70.32  
 E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
 www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
 elektrizitate eta margo-lanak  
 2daurrelan@gmail.com  
 669 42 76 23

Deustuko kanalaren irekierak uholde arriskua murrizten du?



**Nati Santutxu**

Konpondu beharrean arazoa areagotu du uharteak. Lehen itsasoko urak kanalaren hormarekin egiten zuen topo, baina orain muga hori kendu diote eta askoz ur gehiago sartzen da.



**Aitor Zorrotza**

Argi dago ez duela arazoa arintzen. Bilbotarkeria izan da.



**Martin Abando**

Arazoa arindu bai, baina ez du konpontzen. Agian Alde Zaharrean igarriko da eragina, baina Deustualdean ez. Uharteak ez du Elorrietako arazoa arintzen.



**Mimi Erribera**

Arazoak ez dauka konponbiderik. Ura berriz aterako da.



**Isabel Abando**

Arazoa Elorrietako bihurgunean dago, kanaleko eta itsasadarreko ura elkartzen delako. Kanalaren irekierak Alde Zaharreko uholde arriskua murriztu du, baina ez hemengo.



**Josu Ibarrekolanda**

Ez nago uhartearen aurka, baina honek ez du konpontzen uholdeen arazoa. Lurzoruaren maila altxatu eta itsasadarra itxi beharko lukete uholdeak saihesteko.



# harkua bete berba

>> ANTZERKIA

## ATZOKO ETA GAURKO ZAPALKUNTZA ETA BORROKAK

*Umorea eta drama nahastuz emakumeen borroka eta batasuna irudikatzen dituen haurrentzako antzezlanaren aurkezten du Eidabe ekoiztetxeak. 'Mari eta gaileta fabrika' izeneko obra Artiach fabrikako langileen istorioetan dago oinarrituta.*



Testua: Jone Gartzia - Argazkiak: Eidabe

"Berdintasunaz eta parekidetasunaz" jarduten du Eidaberen azken lanak. Haur eta familiei zuzendutako antzezlanean hainbat osagai nahastu dituzte: emakumeen borroka, emozioa, barreak, elkertasuna, musika, euskara... Ez da gutxi, 55 minutuko saioan barnebiltzeko.

Galder Perez bilbotarrak idatzi du gidoia, eta Olatz Gorrotxategik zuzentzen du eszenatokia. Taula gainean Ainhoa Artetxe, Nagore Gonzalez eta Itxaso Paia aritzen dira eta familia bereko hiru belaunaldi irudikatzen dituzte: ama, alaba eta amama. *Flashback*-en bitartez iraganera egingo dute salto gaileta fabrika batean gertatutakoak ikusteko.

Lukak, protagonistak, galletak prestatu nahi dizkio amamari, bere etxean egun

batzuk igaroko dituelako. Familiako errezeta ikasten duen bitartekak, amaren kontakizunak entzuten ditu arretaz. Galletak gozoak izan arren, oroitzapen mingotsak ekarriko dizkio burura amamari.

*Mari eta gaileta fabrika* Deustuibarreko Artiach lan-tegiko emakumeen bizitzetan oinarritzen da. Besteak

beste, orduko grebak, borrokkak eta emakumeen lana ezagutzeko aukera izango dute ikusleek.

### Estreinaldia Deustun

Azaroaren 25ean estreinatu zuten antzezlanaren Deustuko Erriberan eta urtarrilaren hiruan Bidarteko udalategian izan ziren. Oraindik datarik zehaztu ez badute ere, San Inazio eta Arangoitira hur-

biltzeko asmoa azaldu dute ekoiztetzeko kideek. Datoren hilabeteotan hainbat saio emango dituzte Bizkaia eta Gipuzkoan. Gertuenak, otsailaren 24ean Sopelan, martxoaren 7an Bilbon, eta martxoaren 30ean Etxebarrrin izango dira. Obra zenbait formatutan eskaintzen dute, eskoletan, kultur etxeetan zein antzokietan egiteko moldagarria baita.







Euskaraz  
Hezi  
eta  
Bizi!

**MATRIKULAZIO EPEA URTARRILAREN 28TIK OTSAILAREN 8RA  
ATE IREKIEN JARDUNALDIA URTARRILAREN 30EAN 19.00ETAN.**

# intxixuikastola

Tel. 944759180

[zuzendaritza@intxixuikastola.net](mailto:zuzendaritza@intxixuikastola.net)

[www.intxixu-ikastola.net](http://www.intxixu-ikastola.net)

Kanariar Uharteak, 71 - 48015

**HURBIL  
ZAITEZ!  
¡CONÓCENOS!**



**ATEAK ZABALIK:** Otsailak 2, larunbata (11:00 – 13:00)

BATZAR INFORMATIBOA (11:00) BISITA GIDATUA (12:00)

**DÍA DE PUERTAS ABIERTAS:** Sábado 2 de febrero (11:00 – 13:00)

REUNIÓN INFORMATIVA (11:00) VISITA GUIADA (12:00)

**MATRIKULA / MATRÍCULA**

Urtarrilaren 28tik, otsailaren 8ra

Del 28 de enero al 8 de febrero

>> KIROLA

# TXINAKO ESKALADA SELEKZIOA

*Eskalada kirol olinpikoa lehen aldiz izango da 2020ko Tokioko Jokoetan. Berria zabaldu zenetik hainbat selekzio buru belarri ari dira Japoniarako txartela lortu guran, tartean, Txinakoa. Iragan azaroan Deustura iritsi zen, 2020ra bitartean Erriberako Piugaz rokodromoan entrenatzeko asmoarekin.*

**Testua eta argazkiak:** Jone Gartzia Gerra



Zazpi eskalatazaila gazte, 15 eta 24 urte bitartekoak, lau entrenatzaile eta fisioterapeuta bat. Hamabi lagun horiek osatzen dute Txinako eskalada selekzio olinpiarren lantaldea. Joan den azaroaz geroztik Erriberako Piugaz rokodromoan prestatuko dute Munduko

Txapelketa, 2020an Tokion egingo diren Joko Olinpikoetarako sailkapena helburu dutela.

Taldeak Bilbon izango du egoitza apirilera arte, orduan hasiko baita Munduko Kopa. Entrenamendu gogorrak egiten ari da txinatar

selekzioa eta bost egunean behin baino ez dute atsedetik hartzen. Bien bitartean, Europako hainbat txokotara irteerak antolatzen ari dira.

Orain gutxi, taldea Milanen egon zen entrenatzen. Otsailean Parisera joateko asmoa dute, bertoko eta Belgikako selekzioekin pres-taketak egitera. Munduko Kopa hastean gehiago mugituko dira: Suitza, Errusia... eta gero Txinara, etxera.

## **Faggani, Erriberara heltzeko gakoa**

Pasa den urteko Innsbruckeko Munduko Eskalada Txapelketaren ostean, Txinako Federazioak Toni Royrengana jo zuen Joko Olinpiarreko txartela lortzeko asmoz. Lehengo Espainiako hautatzaileak baietza eman eta David Gambus gasteiztarra eta Giainni Faggiana italiarra sartu zituen taldean.





Selekzioa hartu eta berehala, prestatzaileak leku bila hasi ziren. Txina baztertu zuten bertako instalazioak desegokiak zirela irizita eta bi aukera aztertu zituzten: Japonia edo Europa. Asiako herrian entrenatzea aton baztertu zuten garestia zelakoan eta Kontinente Zaharra aukeratu zuten. Bi arrazoi egon ziren: Europa hobe ezagutzen zuen entrena-tzaile taldeak eta Munduko Txapelketako lehiaketa asko bertan ingiro dira.

Nolatan heldu ziren hona, bada, Europa hain “handia eta zabala” izanik? Gianni Fiaggana da gakoa. Italiarra Piugaz rokodromoko

sortzaile eta kudeatzailea da Irati Hernaizekin batera (Prest, 159. alea). Horrek Erriberako instalazioak nahi erara erabili eta moldatzeko, presak lekualdatu eta nahi beste proba egiteko aukera ematen zien. Goizez eurak bakarrik egoten dira bertan, Roy hautatzailearen berbetan, beste edozein rokodromo komertzialetan ezinezkoa litzatekeena. Horri esker, ekipazio ezberdinekin behar bezala entrena daitezke.

### Lehen aldiz kirol olinpikoa

Eskalada kirol olinpikoa izango da estreinakoz Tokioko Joko Olinpikoetan. Hiru proba kontuan hartuko dira, zailtasuna, blokea

eta bizkortasuna, eta onenak urrezko domina eramango du etxera. Kirolarientzako erronka handia izango da, lehen aldia baita hiru modalitatean lehiatu beharko direla. 40 plaza baino ez dituzte izango horretarako, 20 emakumezkoentzat eta beste 20 gizonezkoentzat.

Entrenatzaile eta eskalatzaileen helburua Munduko Kopan Joko Olinpikoetarako txartela eskuratzea da. Lan horretan buru-belarri arituko dira 2020ko uda bitartean. Erronka zaila dela badakite, baina batek jakin, agian Txinako eskaladaren historia olinpikoa Deustun hasten da.

testua: **Tamara Gutiérrez**  
zuzendaritza: **Ramón Barea**

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

# G A L E R R I A

ekoizpena:



**ANTZOKIZ**

**OTSAILAREN 1etik AURRERA**  
PABELLÓN 6en

**P6**

PABELLÓN 6en  
ANTE ESZENTROAK



# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## BAKILAO ISLANDIARRA

*Iruña kaleko metro igogailuaren aurrean dago Bidegorri taberna, bidegorriaren parean. Bertan hartu gaituzte Mikel eta Miren anai-arrebek, tabernaren sekretuez mintzatzeko.*

**Zaitasun maila:** Erraza

**Egiteko denbora:** 10 minutu

**Prezioa:** 1,40 euro

**Berezitasuna:** bakilaoa gordinek zerbitzatzen da.

### Kontu batzuk

18 urte daramate Mikel eta Miren anai-arrebek Bidegorri tabernaren barra atzean. Bertan eztabaidarako giro aproposa izaten dela azaldu digute. “Horregatik erosten dituzte egunkari guztiak”, argitu digu tea hartzera hurbildutako bezero batek. “Etxean egindako bizkotxoa ere daukate” gaineratu du. “Taberna gutxitan ikusten da hori”. Astean zehar denetarik dastatu daiteke tabernan: pintxoak, bizkotxoa, edariak... Asteburuetan jaki bereziak izaten dituzte, *Bakailao islandiarra* tarteko. Mimo handiz egiten duten pintxoaren sekretuak kontatu dizkigute.



Bidegorri tabernako Mikel



### BIDEGORRI BAR CAFÉ

Iruña kaleko metro parean

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 23:00etara  
Igandetan 12:30etik 23:00etara



## Zelan egin?

Lehenik eta behin baratxuria, tipula eta piperrak zatitu behar dira. Jarraian zartaginean olio berotu eta barazkiok egiten utzi. Prest daudenean ogi xerra batean ipini.

Honen gainean bakailao freskoa jarri behar da, gordinik.

Amaitzeko, maionesa pitin bat gehitu ahal zaio, apur bat baino ez.

## OSAGAIK

- Bakailao freskoa*
- Olioa*
- Berakatzza*
- Tipula*
- Piper berdea*
- Piper gorria*
- Ogia*
- Maionesa*



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA


Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako frontoiaaren atzean



**Deustuko  
Ramon y Cajal kalean  
girorik onena!**



*Pedro Carballo Suárez*

**ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO**

# Prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



## LAURA FEIJO IGLESIA

*Sortzailea eta bihurria*

### KEAK (LUR HARTU) DU

Aireratzen den keak inguratzen ditu kaleak neguko arratsalde hotzetan. Arratsalde horietatik, askotan, ezer gutxi atera dezakegu, eguneroko zurrunbiloak gure nahiak gaintitu eta gogoari irabazten dionean. Baina lanean edo ikasketetan pentsatzeari utzi nahi diogunok tartea ateratzen ohi dugu gure burua aireratzeko.

Arratsalde hotz horietako batean aireratu nintzen ni San Mames Zumarkalearen 11. zenbakian dagoen AIRE galerian. Andaluziako herriek dituzten kale estuen antzerako pasabide batean sartu eta ate txiki baten barruan topatu nuen lekua. Bertan, zenbait urtez nire bidelagun izan diren Ainara Alkorta, Auritz Iñurrieta eta Garazi Calvoren erakusketaren inaugurazioarekin egin nuen topo. Horiek, Asier Badiola, Maite Gonzalez eta Leire Lacunzaren lanarekin batera, gure buruari *Kit-Kat* bat eskatzeko erronka luzatzen digute, haien obrari begira zer sentitu, ulertu eta imajinatu dezakegun pentsaraziz.

Horregatik, "hau zer da?" edo "honek zer esan nahi du?" bezalako galderak ez egiteaz goratu eta gure buruari sormen ariketa bat proposatzeko lekua dugu bertan. Pinturak eta marrazkiak aurkitzeaz haratago, bakoitzaren interpretaziotik atera daitekeen esanahia izango du erakusketak, betiere kolektibotasunetik hasiz eta lan bakoitza bere baitan interpretatzera heldu arte. Airean hegan doan kea lurreratzen denean bezalaxe.

Airea hartu eta buruari erronka polit hau jartzeko aukera dago asteartetik ostiralera 17:00etatik 19:30era. Hurbildu, dastatu eta atera itzazue zuen ondorioak.



## ENARE MUNIATEGI ETXABE

*Elorri bertso-eskolako kidea*

### BUKATU DA, AKABO!

*Doinua: Loriai udan*

Hamaika leku hainbat kultura denak hain berezi, bitxi, nire burbuilarik urten nintzen ta honetara iritsi. Pozik bizi izan naiz atzerrian eta hori ez da gitxi, bueno... egia esan Deustun be ez naiz bape txarto bizi!

Erasmusean hainbat bizipen, poz eta zorion dago. Hemen denpora oharkabean hegaz ohi zaigu igaro. Orain atzera begiratuta sinestu ezinik nago lau hileak labor pasa dira ta bukatu da, akabo!



## Gure ikasleen ahotan

### ***“Praktikotasunagatik eta lana aurkitzeko baliabideengatik aukeratu nuen Mondragon Unibertsitatea”***

*Mikel Herce González (21 urte, Bilbo) Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako ikaslea da.*



#### **Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?**

Bilbon Batxilergora arte ikasi nuen eta neure burua Bilbo uztera behartuta ikusi nuen orain dela lau urte; izan ere, Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko Komunikazioa gradua Aretxabaletan ematen da.

Argazkigintza dut nire hobby gustukoena, eta horri lotuta, bideogintza; beraz, zalantzarik gabe, gradu hau aukeratzea ez da harritzekoa, praktikan jartzen dudalako nire kabuz ikasitako guztia, baita gauza berriak ere.

#### **Zergatik aukeratu zenuen ikus-entzunezko gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Esan bezala, argazkigintza eta bideogintza nire hobby nagusiak izanik, horrekin lotuta zegoen gradu bat aukeratu nahi nuen; hortaz, Mondragon Unibertsitateak eskaintzen zuen gradua ikusi ondoren, horren aldeko apustua egin nuen.

Ikasketa metodologia praktikoa eta gradu ostean lana aurkitzeko baliabideak izan ziren arrazoi nagusienak aukeraketa egiterakoan. Gainera, 50 ikasle gara kurtso bakoitzean; beraz, harreman hurbilagoa izateko aukera dugu bai irakasleekin, baita ikaskideekin ere.

#### **Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Lau urte hauetan unibertsitatean asko ikasi dudala uste dut; ez bakarrik ikasketei dagokionez,

baizik eta pertsona bezala ere asko hobetu dut. Alde batetik, hasierako ikaskide zirenei esker, orain lagunak direnei esker, aldaketa galanta egon da. Beste aldetik, erronka berriak gainditzeko; hala nola, euskara.

Graduko metodologiak teoria praktikara eramateko eta enpresa batean praktikak egiteko aukera ematen digu: hainbat kontzeptu lan esparruan nola egiten diren ikusiz.

#### **Nola definituko zenuke HUEZIn (Humanitate eta Hezkuntza Zientziak) jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Aipatu dudan bezala, primerakoa dela uste dut jasotzen dugun metodologia, praktikan jartzen baitugu teorian ikasten ditugun kontzeptu guztiak; ikasleontzat errazagoa da barneratzea gauzak egiten, ikasiz baino. Gainera, ikasgaiak sekuentzietan banatzen ditugu. Beraz, denbora tarte batean bakarrik sekuentzia bat ikasten dugu.

#### **Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Erabiltzen den metodologia eta ikasleekin egiten den taldea da unibertsitatean gehien gustatzen zaidana.

#### **Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Gradua bukatu ondoren, lana aurkituz gero, ikus-entzunezkoen ekoiztetxe batean lan egitea gustatuko litzaidake; bestela, diseinuko kurtsoren bat egiteko asmoa ere badaukat.



**KUSI  
ETA  
IKASI**

• FAMILIAN EUSKARAZ GOZATU •

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezkoa da **00**retik  
izena ematea [www.ikusietaikasi.eus](http://www.ikusietaikasi.eus) gunean  
aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez.

**IZEN EMATE EPEA: URTARRILAREN 14TIK 27RA.**

• 2019ko

• OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA



euskaltzateen  
topagunea

**B**

**Bilbao**

**Bilbon**  
**euskaraz**



**B**

**Bilbao**